

## Bidebieta



# Hau da hau zorte txarra!

**Gaur egun ez dago auzoan kiniela edo loteria-primitiboa zigilatze lekurik. Auzotarrek Bidebietatik kanpora joan behar dute zorte bila.**

**D**uela urtebete baino zertxobait gehiago utzi zioten Bienvenido taberna-koek kiniela, loteria-primitiboa eta bonolotoa zigilatzeari. Orduz geroztik, auzoan ez dago zigilatze tokirik. Horren arrazoia jakiteko, Espainiako Loteria eta Apustuen Erakundearen Gipuzkoako ordezkari-tzara jo dugu. Bertako ardura-dunek azaldu digutenez, aipatutako erakundeak zigilatze baimenak lehiaketa publiko

### Zigilatze baimenak lehiaketa publiko bidez ematen dira

bitartez ematen ditu —Hego Euskal Herriko eta Espainiako toki guztietan aldi berean—, eta, beraz, lehiaketa egin arte itxaron beharko da: "Lehiaketa publikoa deitzen dutenean, Gipuzkoan dauden beharren arabera, proposamenak egin ahal izango ditugu. Guk Bidebietako dendaren bati zigilatze baimena eman diezaioten eskatuko dugu. Auzoko dendari batzuk prest daude zerbitzu hori beraien gain

hartzeko. Azken lehiaketa duela pare bat urte egin zuten. Dena dela, maiztasun finkorik ez dutenez, ez dakigu zehatz-mehatz hurrengoa noiz egingo duten".

Serapio Mujika kaleko estankoa da eskaera egin dutenetako bat. Estankoko ardura-dunek diotenez, "1996an eskatu genuen lehendabiziko aldiz. Sasoi hartan, baina, Bienvenidon zigila zitekeen eta horregatik ez ziguten baimena eman. Tabernakoek duela urtebete luze eten zuten zerbitzua. Hala ere, baimena lehiaketa publiko bidez ematen denez, ezin izan genien zuzenean haiei lekukoa hartu, eskaera alde aurretik eginda genuen arren".

### Makina berriak kiroldegian

Kiroldegiko Udal Patronatuak pare bat muskulazio makina berri jartu ditu auzoko kiroldegiko gimnasioan. Muskulazio gimnasioaren gaineko solairu berri zehar makina berri jartu dituzte. Harkak erabazteko pare bat arrautcan aritzeko balaita biziaketa batzuk.

### Ingurumarietara

Gauzak horrela, Juan Karlos Gerra kalekoak eta ingurukoak Trintxerpeko Azkuene kalera joan ohi dira kinielak edota loteria-primitiboak zigilatzerara. Gaiztarrokoek Azkuene kaleko loteria-administrazio edo liburu dendaren eta Herrerako liburu-dendaren artean aukera dezakete. Batzuek zein beste-ek bost bat minutu behar izaten dituzte oinez aipatutako lekuetara joateko. Institutu eta zahar etxearen ingurukoek, berriz, halako bi ibili behar izaten dute, hamar minutu inguru, Trintxerpera edo Herrerara joateko. Leku batera zein bestera, kilometro inguru dago. Auzotarrak zorte bila urrunago ere joaten direla esan digute estankoko lagunek: "Trintxerpera, Erdialdera eta Garbera merkataritzaren gunera joaten dira. Jende asko kexuka etortzen zaigu maiz, zigilatze makina noiz demontre izango dugun galdezka".

**PSIKOMOTRIZITATE DESEGOKIAREKIN LOTURIKO IKASTE ARAZOREN BAT AL DUZU?**

**DIAGNOSTIKOA ETA TRATAMENDUA**

**LOGOPEDIA BULÈGOA**

Sanchez Toca Kalea 9 - 4. pisua lehen bulegoa  
Tel.: 665 715 693

**MAGNETISTA NATUROPATA**  
Tel.: 943 623055 · San Marzial 7 - IRUN

ERREKUPERAZIOAK	IKUSMENA	GIHARRETAKO
- Diabetea	- ERREKUPERATZEA	- ARAZOAK
- Larruazaleko alergiak	- Begi nagiak	- Erreabilitazioa
- Asma	- Miopia	- Artrosia
- Buruko mina	- Hipermetropia	- Erreuma-artritisa
- Prostatita	- Estrabismoa	- Lunbalgiak
- Birusak	- Begi-lausoak	- Lepoko mina
- Oinetako izerdia		

**ORDUTEGIA:**  
Goizez 9:10  
Atrazaldetik 14:19  
Aurreko egunetik harru

Zentru ez santanaka